



**2013KO MAIATZAREN 29KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko maiatzaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Inazio Estensoro Eskisabel, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Andoitz Garmendia Zubeldia, Ane Irastortza Izagirre eta Milagros Madrazo Rada zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2013ko otsailaren 28an egindako ohiko eta apirilaren 18an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 2012KO LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-**

Ogasun Batzordeko presidentea den Goenaga zinegotziak 2012ko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Esaten du likidazio honetan gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.024.469,98 eurokoa dela. Esaten du baita ere, 2012an Elkarkidetzari egin behar zitzairen ekarpenak eta egin gabe gelditu zirenak 2.779,80 euro eta abenduan ordaindu gabeko ez-ohiko ordainketa 63.237,37 euro izan zirela eta kopuru horiek kontuan izango dituztela.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Albisu zinegotzia irten egiten da aretotik.



#### IV.- ITURGAITZAGAKO BIRIBILGUNEKO LANEN 8. ETA 9. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko biribilguneke lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 8. eta 9. obra-egiaztagiriak luzatu ditu. Lanen 8. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMotakoa (34.846,78 €) da eta 9. obra-egiaztagiriarena berriz LAUROGEITA HAMASEI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMotakoa (96.235,54 €). Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, eta obra honen inguruan eskatuko argibideak eman ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko biribilguneke lanen 8. eta 9. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

#### V.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNEKO LANEN 4. ETA 5. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-Eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 4. eta 5. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Lanen 4. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMALAU ZENTIMotakoa ===== (92.856,34 €) da eta 5. obra-egiaztagiriarena berriz HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA BENDERATZIEHUN ETA BI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMotakoa ===== (73.902,75€). Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 4. eta 5. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

Une honetan Albisu zinegotzia bilkurara itzultzen da.

#### VI.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.-

Lazkaoko Udalaren Etxeko Laguntza Programaren zeharkako kudeaketa lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, eta gizarte zerbitzuen batzordeak informatua izan delarik, bere onarpenera jartzen da udal osoko bilkura honen aurrean.

Lehiaketa honen datu esaguratsuenak honako hauek dira: lizitazio oinarria den orduaren prezioa: 18,0385 euro, B.E.Z. kanpo; urteko aurrekontu zenbatetsia 155.383,64 € gehi B.E.Z.; kontratuaren epea: 2 urte; kontratuaren luzapena: 2 urte gehienez.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

LEHENA.- Berriazko Klausula Administratiboen eta Preskripzio Teknikoen Pleguak onartzea.



BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartu, aurrekontuaren dagozkien partiden gain gastua onartu eta lehiaketa ireki bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea; Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean iragarkia argitaratuz.

#### VII.- ONKOLOGIKOAREN MOZIOA.-

Gai honen inguruan bi mozio daude, bat Bilduk aurkeztutakoa eta bestea EAJk aurkeztutakoa.

Bilduk aurkeztutako mozioak honela dio:

“Onkologikoa kolokan dago bere etorkizuna zalantzan jartzen dituzten erabakiak hartzen ari direlako, Onkologikoan urteak lanean daramatzaten profesionalek eta langileek salatu duten moduan. Onkologikoak gipuzkoarrei orain arte eman dien zerbitzua ematen jarraitzea nahi badugu, kezka hauei kasu egin behar diegu.

Honengatik guztiatik Lazkaoko Udalak Onkologikoaren defentsa irmoa egin behar du. Horretarako Onkologikoa Osasun Zerbitzu Publikoa den Osakidetzan sartzea eskatu behar da, jendarte guztiaren esku dagoen zerbitzua ziurtatzeko dagoen bide bakarra baita.

Onkologikoaren biziraupena eta zerbitzua bermatzea Lazkaoko Udalaren ardura ere bade-lako; Onkologikoaren jardura nagusiak osasungintza publikoa izan behar duelako; herri-aldeko gaixotasun onkologikoak artatzeko zerbitzu espezializatu gisa erreferente izaten jarraitu behar duelako eta jendarte guztiaren zerbitzura egon behar duelako, honako mozio hau aurkezten dugu Lazkaoko Udalak aztertu eta onartu dezan:

- 1.- Lazkaoko Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzetan egin duten lanagatik. Lan honek Onkologikoa mantendu, zaindu eta babestu beharreko erreferentean bilakatu du, beti ere jendarte guztiari zuzendutako zerbitzu bezala.
- 2.- Lazkaoko Udalak Onkologikoa, Osakidetzan, Osasun Publikoaren Sistematan, sartzeko nahia adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutzako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira.
- 3.- Lazkaoko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Kutzako eta Kutxabank-eko zuzendariari eskatzen die, adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsiziozko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duen diru-hornidura. Hornidura honek, gutxienean, orain arteko kopuru berekoa izan behar du.
- 4.- Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakiak jakinarazi behar die:
  - ▲ Kutzako Batzarrari eta bere Gizarte Ekintza Batzordeari
  - ▲ Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari
  - ▲ Osakidetzako Zuzendariari
  - ▲ Lazkaoko herritarrei”

EAJk aurkeztutako mozioak honela dio:



"Onkologikoa, Kutxaren Institutu Onkologikoa da. Minbiziaren prebentzio, diagnostiko eta tratamendurako Zentro monografikoa da, teknologia aldetik punta-puntakoa. Hirurehun profesional baino gehiagok dihardute lanean bertan.

Onkologikoa aspalditik dago integratua EUSKAL OSASUN SISTEMAN, izan ere, duela 25 urte INSALUDen transferentzia jaso genuenetik eta gaur arte, Eusko Jaurlaritzako Osasun-Sailarekin sinatutako HITZARMENEN bitartez, Gipuzkoako zein Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurraldeetako hainbat pazienteren onkologia esparruko atentzioa bere gain hartu izan du eta hartzen jarraitzen du. Era berean, Aseguru Pribatuetako pazienteak eta paziente partikularrak ere tratatzen dira ONKOLOGIKOAN.

Esandako moduan, KUTXA da ONKOLOGIKOAREN jabea, bere Obra Sozialaren ikur nagusienetakoa da. Ondorioz, ez dadila inor nahastu, Onkologikoa, Euskal Osasun Sistemaren egonda ere ospitale pribatua izan da betidanik, sortua izan zenetik.

2010. urtean KUTXAK Ospitale Onkologikoa izandakoa FUNDAZIO bilakatu zuen, irabazi asmorik gabeko Fundazioa da eta interes publikoko jardueretara mugatzen da bere jarduna.

Fundazio bilakatzeaz batera, nortasun juridiko propioa eman zitzaion eta bere gidaritza Patronatu baten esku utzi da. Patronatu horren buru Kutxako presidentea bera dugu eta otsailaren 13tik aurrera, Osasun Sailburuordea ere Patronatu horretako partaide da.

Bat gatoz erabat ONKOLOGIKOAK Euskal Osasun Sistemaren duen garrantziarekin. Gipuzkoan zein erkidego osoan prestigio handiko zentroa da eta funtzio sozial ukaezina betetzen du.

Eta guk ere horrela izaten jarraitu dezan nahi dugu.

Horregatik, Osasun Sailburuak gai honen inguruan hartutako konpromisoa beteko du. Argi esan duen bezala, Eusko Jaurlaritzak erantzukizunez jokatu du eta ez du ONKOLOGIKOA albo batera utziko.

Oso alderantziz, 2013ko abenduaren 31ean amaitzen den HITZARMENA berritzeko asmo irmoa azaldu du jada, hain zuzen ere, ONKOLOGIKOARI egonkortasuna emateko helburuarekin.

Jaurlaritzak urratsak ematen jarraituko du ONKOLOGIKOAREN eta Donostiako Unibertsitate Ospitalearen "integrazio funtzionalerako" bidean.

Uste baitugu beharrezkoa dela onkologiaren atentzioa osotasunean aztertzea Gipuzkoa zein Erkidego mailan, ondorioz aurrerapausoak ematen joateko bi erakundeen arteko integrazio funtzionala erdiesteko bidean.

Hori horrela:

- 1.- Onkologikoaren zeregina aitortzen dugu eta bertan ari diren langileen lana eta Kutxak bere Gizartekintzaren eskutik eginiko apustua errekonozitzen dugu.



- 2.- Azken hogei urtetan Jaurlaritzak Onkologikoarekin mantendu duen kontzertua berritze-ko beharra baieztatzen dugu, Onkologikoa Euskal Osasun Sistemaren parte izan dadin etorkizunean ere, gipuzkoarroi zein gainontzeko erkidegoko herritarroi, Sistema Publi-koaren bitartez, atentzio onkologikoa eskainiz.
- 3.- Zenbait gaixotasun onkologikotan Onkologikoa da erreferente, beste batzuetan Donos- tiako Unibertsitate Ospitalea. Bien arteko integrazio funtzionala sakontzea beharrezkoa ikusten dugu, gutxiago lehiatu dezaten bi erakundeek beraien artean eta gehiago sa- kondu bien arteko elkarlanean."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Bilduren mozioaren alde bozkatuko duela. Eta gaineratzen du alde bozkatu duela, besteak beste, mozio honen bigarren eta hiruga- rren puntua oso osorik, Alderdi Sozialistak Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako testuarekin erabat bat datorrelako eta bestalde Kutxak orain izan duen eraldaketa eta Kutxabanken sorrerarekin obra soziala alde batera utziko ote duenaren arriskua ikusten dela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Kontseilariak Eus- ko Legebiltzarraren aurrean garbi utzi duela Onkologikoaren finantzaketa %85ean Osaki- detzatik izango dela, bestalde Kutxak ere bere babesa mantentzearen aldeko borondatea azaldu duela eta beraz ez dutela ulertzen zergatik planteatzen den hau.

Alkateak (Bildu) esaten du 300 profesional baino gehiago zituela lehen eta berregi- turaketa honekin zerbitzuren bat edo beste ere itxi dutela eta orain zenbait profesional di- ren ere ez dakigula eta horrek sortzen dituela zalantzak eta beldurrak eta horiek izan dire- la mozio hau aurkeztearen arrazoietako bat.

Eztabaida guzti honen ondoren bozketan jartzen da lehenengo Bilduren mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (Bildu, PSE-EE) eta aurkako 3 botuz (EAJ), onartu egiten da.

Jarraian EAJk aurkeztutako mozioa jartzen da bozketan eta Osoko Bilkurak, aldeko 3 botu (EAJ) eta aurkako 7 botuz (Bildu, PSE-EE) atzera botatzen du.

#### VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) aurrekontu likidazioaren berri ematerakoan eskari bat egin du eta eskari hori da udalak pilatutako diruzaintzako gerakina mardula dela ikusita alde batetik eta ekonomi egoera ikusita bestetik, ekonomiaren gaiaren inguruan elkar lana egitea eta batzorde bat antolatzea, ekonomiaren gaiaren inguruan zer egin liteken azter- tzeko. Honen aurrean Serna zinegotziak (PSE-EE) ekimenarekin ados dagoela esaten du eta Alkateak (BILDU) esaten du jasota gelditzen dela eta beraiek irekita daudela horretan lan egiteko.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du bihar greba orokorra deituta dagoela eta be- raiek bat egin dutela deialdiarekin.

Jendartetik lagun batek galdetzen du ea zer gorabehera izan diren aurreko astean herrian egindako kontzertuarekin.



Alkateak erantzuten dio esanez bere garaian kontzertua egiteko baimen eskaria jaso zela udaletxean eta kontzertuta egiteko baimena eman zitzaiela eta hasiera batean Kiroldegian egitekoa zela baina, kontzertua egiteko egun gutxi falta zirela, kiroldegiak bete beharreko baldintza teknikoak ez dituela betetzen eta, beste kokaleku bat eskeini zitzaiela antolatzaileei, futbol zelaiaren azpian dagoen aparkalekua hain zuzen ere.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du EAJk kontzertua bertan behera utz zedin eskaera egin zuela, eta kontzertu horiek mugitzen duen jendeak arriskuak sortzen dituela argudiatu zuela. Eta gehitzen du honezaz gain kiroldegiaren segurtasun neurriak ez betetzearen gaia argudiatu zela baita ere.

Urkola zinegotziak (EAJ) bere ikuspegiaren azalpena egiten du. Esaten du berak kaletik jakin zuela kontzertu honen berri, bestalde beraiek ez zutela lekuz aldatzeko baizik eta bertan behera uzteko eta azkenik talde horien baloreekin ez datozela bat eta gehitzen du ez dela antolatzaileez ari baizik eta talde hauek ematen duten mezuaz ari dela.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeitaz direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

